

XVIII. MENDEKO TESTU EUSKERIKO BAT

Iñaki Zumalde

Mende honen hasieran Serapio Mujikak euskara Udal Artxiboetan (1) gaiari buruzko lan bat argitaratu zuen; bertan adierazten duenez, gure hizkuntzan idatzitako oso testu gutxi aurkitu zituen Gipuzkoako artxiboetan ordenatzaile eta ikertzaile lanetan hainbeste urtez ihardun ondoren. Hain zabala ez den gure esperientziak gauza bera erakusten digu. Beraz, era honetako aurki-kuntzak pozgarriak gertatzen zaizkigu.

Halako zerbait gertatu zaigu orain dela gutxi Bergarako Udal Artxiboan ikertzen ari ginela. Ez dakigu testu hau argitaratu denik, eta interesgarri izan daiteke argitaratzea, baina euskarazko eta gaztelarazko testuen grafia errespetatuz, San Pedro elizako eliztar gehienak euskal hiztun soilak zirelako notarioak egin zien itzulpena denez gero. Ez bait gara filologoak, historiagile soilak baizik, gaztelerazko testua eta bere euskarazko itzulpena eman besterik ez dugu egingo, sarreran testuaren edukia eta itzulingurua azalduz. Horrela, filologoek, testuaren itzulingurua ezagutuz aztertu dezakete.

Testuan, Billabona eta Azpeitiko alkateen zenbait zalantzei Castillako Goren Kontseiluak emandako erantzunak agertzen dira. Zalantzak, delako erakundeak aurreko Erreal Probisio batetan hileta ospakizunetarako legeztatutako aginduen interpretazioak sortzen zituen.

Probintziako herririk gehienetan ematen ziren gehiegikerien aurrean, 1765ean Zumaian Batzarre Nagusiak bilduta, Diputazioari (2) zera agindu zioten, hots, artzaapezgoen bitartez apezeriaz adostasun batera iritsi zedila.

(1) MUGIKA, Serapio: “El Vascuence en los Archivos Municipales de Guipúzcoa”. RIEV. 1908, pp. 725 y ss.

(2) Garai horietan Diputazioa, Batzar Nagusiek *diputatutako* erakundea zen, hain zuzen, Batzar Nagusia eta Batzarra biltzen ziren bitarte horretan sortutako hainbat arazo konpontzeko erakundea; hartutako erabakiak bete eta tramitekoak konpondu. Gaurregun ezagutzen dugun Diputazioa joan zan mende erdiko da.

Erauzi nahi ziren gehiegikeria hauek aspalditik zetozen. 1583an Zandategui eta Cruzat-ek bildutako “RECOPILACION DE LEYES Y ORDENANZAS DE LA M.N. y M.L. PROVINCIA

Baina ahalegin honek porrot egin zuen. Zera gertatzen zen, alegia, beneficiatuek hiletetan, urtemugetan, bederatzurrenetan, etab. ateratzen zuten diruaz heuren ingresoak borobiltzen ohituta zeudela; diru sarrera horiek urriak bait ziren gehienetan.

Apezeriak herri xumearengan zuen eragina kontutan harturik, urteren zehar zenbait ohitura sartu zituzten, luzarora “tradizio santuak” bilakatu ziren ohiturak, apaizek diru sarrera oparoak eskuratzen zituzten heinean, hildakoen familiek eta senitartekoek izugarritzko gastoak jasan behar izaten zituzten, zenbaitetan hondamen zorian jartzera inoko gastoak.

Diputazioaren porrotaren aurrean, Batzarre Nagusiek Castillako Goren Kontseilura errekurso egitea erabaki zuten gai honetan eskua har zean. 1766ko Urtarrilaren 9ko idatzian honako hau adierazten zuten: “los abusos que se cometían en su distrito siempre que moría algún sujeto, haciendo sus naturales unos gastos excesivos, tanto con el motivo de sufragio por los difuntos como el de obsequiar a los parientes y amigos que concurrían al entierro, de lo cual se originaban infinitos perjuicios y aún la ruina de las familias”.

Fiskalak, Gipuzkoan jurisdizioa zuten Korrejidoreari eta Iruñea eta Kalahorra eta Kalzadako Gotzaiei, gaiari buruzko informazioa eskatu zien, “teniendo presentes las leyes reales y Fuero de la Provincia y Sinodales de dichos obispados”. Testu hauek irakurri ondoren 1771ko Maiatzaren 12an hiletak eta lurremateak arautzen zituen Erreal Probisioa eman zen (4).

Probisio honen bidez, Korrejidoreak herrietako alkateei haren betetze zehatza egindu zien. Eta hemen sortu ziren arazoak.

Apezeriak aginduari uko egin zion, zenbait aginduen interpretazioari buruzko zalantzak zirela eta, arauak zehatz-mehatz beterazten eta zigorrak jartzenten.

DE GUIPUZCOA’ko XXVII. titloa, 2. legea irakurri besterik ez dago (San Sebastian, 1983); edo “NUEVA RECOPILACION DE LOS FUEROS” (San Sebastián, 1919) 1702ko bilketa, titulo berean, II kapituloa, eraberritua, Gauza bera araudi erlijiosoa, adibidez, “CONSTITUCIONES SINODALES ANTIGUAS Y MODERNAS DEL OBISPADO DE CALAHORRA Y LA CALZADA”n (Madrid, 1700) III. liburia, I. Tituloa, X. konstituzioa; edo liburu berean, IX. Tituloa, Konstituzioak Vetiak XXIera.

(3) ARCHIVO MUNICIPAL DE BERGARA: “Libro de Decretos que dio principio el 20 de abril de 1779 y fin el 31 de diciembre de 1783”, 159. orrialdea eta hurrengokoak.

(4) A.M.B. Leg.c.fol.160. Aipatzen diren ohitura bitxi eta harrigarrien artean honako hauek daude: “y por lo respectivo a ofrendas y oblaciones se prohibiva, como en efecto prohivimos desde luego por indecente la del par de bueyes que se llevan a el atrio de las iglesias, pero en consideracion a la corta congrua de los beneficios de esa Provincia, permitimos por ahora a el clero que reciban los diez y ocho ducados del rescate de la yunta de bueyes, como igualmente las demas oblaciones y ofrendas del pan, vino y cera. Igualmente prohivimos el abuso de las proclamas acostumbradas hacer por los curas y sacristanes en las iglesias y hermitas de las misas y otros ofrecimientos, que se hiciesen por qualquiera persona, por ser muy reprehensible el acto de publicarse con el fin de que todos las ejecutases a competencia y por emulacion involuntariamente”.

zituzten alkate batzuren jokaera z minduta. Iruñeako artzaezgoek heuren gotzaia-rengana jo zuten.

Urte hartako Abuztuan gotzaiaak, Debatik hasita, egin zuen bisitaldian, besteren arrazoiak entzun gabe eta apaizeriaren kexuak bakarrik kontutan hartuz, agindu bat argitaratu zuen zenbait alkate salatuz, ohizko ofizioak ospateagatik gehiegizko diru zigorrak jartzen zituztela eta, hildakoen kaltetan. Eta eskonomio nagusipean, zera agindu zuen, inork ez zezala galerazi ohizko hileta elizkizun ospakizunik.

Probintzia erabaki honen beldur zen, ondotxo ezagutzen bait zuen diru iturrien murriztearekiko apezeriaren jan-era. Eta Goren Kontseiluari bere lurraldlean ematen ziren gehiegikerien konponbidea eskatu zionean, apezeria matxinatuko zen beldurrez eskabide horretan parte hartzen zuten pertsonei erabateko sekretoa agindu zien, tirabirarik sor ez zedin. Dena dela, alkateek agindutakoa bete besterik ez zuten egiten, pase foralak eta bi gotzaien baiezkoak bermaturiko agindua.

Handik laster, Hernanin Casanovas mediku titularrari alaba bat hil zitzaison. Ohizko hileta eta elizkizunak ospatu ziren. Apezeriari honako elizkizunok egin behar zirela bururatu zitzaison: bederatziurren bat bi ofiziokin, ogi eta argizari eskeintza bi urtez, hirutasun izeneko hiru ofizio, lehen mailako bi urtemuga...

Hildakoaren aitak uko egin zion guzti honi, bere diru sarrerak ez ziola uzten era honetako diruhondaketarik adieraziz, ez beste ezagatik. Apezeriak Iruñeako Eliz Auzitegian auzia jarri zion. Mendikuak, era honetako arbitrarieitatearen aurrean, Probintziara errekurso egin zuen. Honek lagundu egin zion zion kausan parte hartuz. Arazoa eliz eta zibil auzitegietan ibili ondoren, erabat isildu zen Hernaniko apezeriak demanda baztertu zuenean.

Emaitsa honen aurrean, Probintziak, artzaezgoen bidez, apezeriarekin konponketa batera iristeko ahaleginak egin zituen. Artzaezgo Nagusiak onartu egin zuen elkarritzeta; Hondarrabiakoak ere gauza bere egin zuelarik; baina Lenizkoak ez zuen onartu Probintziaren eskeintza, zihur aski, Bergarako eta Antzuolako Kabildoek Goren Kontseiluari eskatu ondoren, lortu bait zuten behin-behineko Probidentzia 1771ko Erreal Probisionea baino lehen zuten izate eta egoeran mantentzeko.

(5) 1783ko E.P.ak ez zuen erabaki Probintzia eta apezeriaren arteko lizkar-aurzia. Hauen erreakzioak Diputazioa Goren Kontseilura errekurso egitera behartu zuen. 1778ko Arrasateko Batzar Nagusietan Artzaezgo Nagusiak eta Lenizkoak akordio projektu bat aurkeztu zuten, funtsean onartu ondoren, onarpenerako Goren Kontseilura zuzendua izan zen.

Onarpena 1790ean lortu zen. Baino ez zuten kabilo guztiek onartu. XIX. mendea aurrera zohoala eztabaidea pil-pil zegoen.

Ikus gai honetaz zehaztasun gehiago: GOROSABEL, Pablo de: *"Noticias de las Cosas Memorables de Guipúzcoa"*. (Bilbao, 1967) Tomo II, 506 orriak eta hurrengoak.

TOLOSAKO ARTXIBO PROBINTZIALEAN, Sek 4, Neg. 1, urte haietan sortutako hainbat expediente daude; bertan aurkitzen da lehen aipaturiko Hernaniko Medikuarena ere (leg. 58).

Oztopo hau izan arren, Probintziak besteekin elkarritzak jarraitu zituen. Baina elkarritzak hauek ez zuten bukaerarik eta arazoak egunetik egunera gehituz zihoa zen. Egoera eutsiezin horretan, 1775ean, berriro Castillako Goren Kontseilura errekurso egitea erabaki zuen, bi arazo planteiatuz; bata, Iruñeako Gotzaiaren agindua baztertu eta bestea, Billabona eta Azpeitiko alkateek aurkeztutako zenbait zalantza argitu, 1771ko E. P. arekiko.

Fiskalak Gipuzkoako Korrejidoreari eskabidearen kopia bidali zion, parte hartzaile guztien audiencia baino lehenagoko akordioaren egoeraz informazioa eman ziezaion. Korrejidoreak 1779ko Azaroaren 30eko datarekin agindua bete zuen, eta txosten honen arabera Goren Kontseiluak 1783ko Martxoaren 11n Erreal Probisio bat bidali zuen, Iruñeako gotzaiari bere agindua bazter zezan aginduz eta delako alkateen hamaika zalantzak argitzu.

Zalantza hauen testua izan zan, beraz, galderaerantzun eran Bergarako notarioak, Lorenzo de Elizpuru, Kontzejuko idazkari legez, itzuli zuen testua, “a la lengua Bascongada para de este modo fuesen todos sacerdotes del contenido de la Resolución del Supremo Consejo, y nadie alegue ignorancia por falta de expresar a cada uno en la lengua que comprendia”.

Hona hemen testoa:

“Lenengo dudia dá, ya sei Abadetan, ceintzuec aguaintzen dan bacarric juandituala entierra, eta onrre-tara Difuntuaren interesatubac izentaturic, aitzen diran bacarric oyec, edo baita aydeac daramazten capellaubac *Errespuestan declaratzenda*: Inolacomoduz asistitu ezdecela sei Abade baño gueiago, lenengo Ordena Realac esatendaben moduban baiciq.

“La primera duda propuesta por esa citada Provincia sobre si el número de seis sacerdotes, que pueden asistir, conforme a la referida Rl Resolución, a los entierros, novenarios, y cavos de año, se entiendan los llamados solamente por la parte, o tambien los capellanes, que llevasen los Parientes y Amigos del Difunto: Declaramos, que por ningün título, ni pretexto asistan mas que los seis sacerdotes, que previene la referida Rl Resolución, a Consulta de nro. Consejo de catorce de marzo de mil setecientos setenta y uno.

Vigarren dudea dá, ya baldin Parroquian arquitzen badira sei Abade baño gueyago, asistitico duten guztiak, edo seirac bacarric. Aguaintzen-dana dá, ece Difuntuaren parteac nombratzendituen sei Abadiac bacarric juandituala, eta oyei bacarric pagatubiarzaitela beren derechuac, eta ez beste Abaderi.

Por lo respectivo a la segunda duda, reducida asi en la Iglesia Parroquial, en que huviese mas sacerdotes, podran asistir todos ó solamente los seis: Declaramos, que solo seis que nombrare la Parte, que costease los Funerales deben asistir pagando á estos los derechos, en que no haian de tener parte los demas del Cabildo Ecco, que no asistiesen.

Yrugarrena dá, ya izango diran contatutzat, esandako sei Abadetan araco beren devocio, edo adizquidetasunaz, inore ots egungabe, etorri nai-dutena Oficiatura. *Aguintzenda*, bacarric asistitudoceela sei Abade deitubac partiagatic.

Laugarrena dá, ya sei Abade oec, auda, interesatubac hots eguiten die-nac, izangodiran erribarrucuac, edo campocoac, Cabilduko ez gañera. *Aguintzenda*, bacarric sei Abadec asisti-tu biardutela, eta ez Partiac, eztaere Cabildubac convidatu litzaquiala, ez hots egui ere beste errico, eta ez campoco Abaderi, eta baldin Justicia-c ac ecusi, edo sentitzenbadu izandi-rala sei Abade baño gueyago, desco-britu bearcodu (*gasturic eguingabe*) sobre egui au, aguindutaco ezgañera-coa; eta baldin Partia badabere men-pecoa, quenduco zayo uts eguite edo desobediencia onegatic lau ducateco multia; baña parte culpatuba baldin bada elizaco Ministruen menpecua, edo beste privilegiaturen bat, artuco du Justiciac Informacio secreto bat, eta gorderican bere poderian Infor-macio onen Copia bat, viraldu bear-codu originala vere Juezari combeni-zayon Castiguraco, eta baldin Juezarc egecutatzen ezpadu, bearcodu Justicia-c eman contu Conseju Errialari biraltcen zaiola Copia gordezana.

Bosgarren Dudea dá, ya Difun-tuac enterratu bearduen egunean, ecin celebratu baditeque oficioa, eta Mecia egoteagatic ocupaturic Cabilduba, bes-te fiesta Solemnean, aldatu litequean, beste egunbatera celebracio au. *Aguint-cenda*, ece Difuntuaren Anima guel-ditu eztedin sufragio augabe, Cele-

Por lo que hace a la tercera duda, de si han de entenderse incluidos en el número de los seis sacerdotes los que por su devocion ó amistad sin llamamiento de las Partes quisiesen concurrir a los oficios: Queremos que solo asistan los seis llamados por la Parte.

A la quarta duda, reducida á si el numero de los seis sacerdotes se entiende de los que llamase la Parte de dentro y fuera del Pueblo, ade-mas de los del Cabildo de la Iglesia en que se celebren los oficios: Decla-ramos que solo haian de asistir seis sacerdotes, sin que la parte ni el Cabil-do puedan convidar, ni llamar a algun otro de dentro ni fuera del Pueblo; y si la Justicia anotase maior numero, deberá descubrir (sin causar gastos) de havverse excedido de dho numero; y si fuese persona sujeta a la Juris-diccion, le exigirá por la contraven-cion la multa de quatro ducados, pero si fuese la Parte culpada sujeta al Fuero Ecco, u otro privilegiado, reci-vira Informacion del nudo hecho, y retenido su Copia testimoniada, remi-tira el Original a su Superior compe-tente para el correspondiente castigo, cuio Superior, si no lo ejecutase, deve-rá dha Justicia dar cuenta al nro Con-sejo acompañando la citada Copia testimoniada.

Sobre la quinta duda, acerca de que, si en el dia del entierro del Difun-to no se pudiese celebrar el oficio y Misa, por estar ocupado el Cabildo en alguna Fiesta solemne, se podrá trasladar a otro dia esta Celebracion: Declaramos, que para no privar al Alma del Difunto de este sufragio se

braditequeala beste egun batean Oficioa, eta Meza.

Seigarrena dá, baldin Partiac eukirican noticia ilzalacoa bere seniden bat erri urrinetan, escatcenbadu sentimentuko funcioa, eguititequean au. Resolucio Errialarequin uts eguin gabe, izanic egunac, eta hillabetia pasatubac. Aguintcendana dá, eztau ala onetaraco embarazuric, baldin izaten ezpadira sei Abade baño gueiago funcioan, eta ematen ezpada estipendioric beste Abade Cabilduko asistitu etzutenei; eta inolako moduz eztitsala juan sei Abade baño gueiago one-lako funciotara.

Zazpigarrena da, ya esandan Resolucio Errialac eragotzenduen Nove-naco Onrac, Urtebetekoac eta beste usatzen diranac, eta oyec celebratu litezquean entierrotic urrengo egunian. Aguintcendana dá, eztaula eraotcirk funcio au, juatendirala sei Abade bacarric, Resolucio Errialac esaten duben bezela, eta Difuntuben herederuari libre utzitzen zayola nay badu edo ezpadu nay celebratu onrac ete beste utsaien diran funcioac, baldin Difuntubac aguintcen ezpadu, eta bacarric izango dala herederuaren obligacioa, Difuntubac gauza onen gañean declarau ezpazuben bere vorondatia, jasotcea Corputza eta Entierroa eguitea Elizac eracutsircic daucan moduban, eta Erreinu onetako leguiez, eta esandan resolucionaz conforme.

Zortzigarrena dá, ya Difuntuba-ren aydeac, eta Adisquideac juan aldiz-

puede celebrar dho oficio, y Misa otro dia.

En quanto a la sexta duda, sobre si quando la Parte, con noticia de haver fallecido algun Deudo suyo en Payses lejanos, pide la función de entierro, llamada de sentimiento, sin contravenir a la citada Real Resolución, aunque haia pasado dias, y meses desde el fallecimiento y sepultura del Difunto: Declaramos, no hay inconveniente, con tal que no se exceda del numero de seis sacerdotes, ni se pague estipendio a los demas del Cabildo, que no huviesen asistido a la función de Sentimiento, y concurraran por ningun motivo, mas de seis Sacerdotes a semejante Función.

A la septima duda, relativa, a si la citada Real Resolucion prohíbe los oficios de Novenario, Cavos de año, y otros acostumbrados, y si estos podran celebrarse el dia siguiente al del enterramiento. Declaramos asi mismo, no estar prohibida esta celebracion en la referida RI Resolución, con la limitación al numero de seis Sacerdotes, y demas circunstancias preventidas, y ademas de que sea libre a los Herederos del Difunto celebrar o dejar de celebrar los oficios, Novenarios y cavos de año acostumbrados, quando el difunto no huviese mandado celebrarlos; siendo únicamente la obligación de los Herederos, en el caso en que el Difunto no huviese en esta parte manifestado su voluntad, el levantamiento, asociación, y entierro del Cadaver, con los Ritos, y Ceremonias, que ha establecido la Iglesia, y arreglo a las leyes del Reyno, y citada Real Resolucion.

Por lo respectivo a la octava duda, reducida, a si los Parientes, y Amigos

tequean Dueloco echera laguntceco Elizara, eta emendic echera. Aguintzen dana dá: eztala eragozten Eliza-
ra laguntzia, baña bai Elizatic Eche-
racoa. Eta aguinctcen dute gueiago, ece
Duelo aguiricoa eguiten dubena ezte-
dila izan, ez Senarra, Aita, eta ez
semea, ezpaldinbada veste Ayde urren
bat, ceñetan ezda arquitzen sentimen-
tu senarragan, emaztiagan, Aita edo
semeagan izango lizaquianic, quen-
tzen dala modu onetan elizatiq, eche-
ra laguntzeco videa Dueloco personari.

Bederatcigarren Dudia, edo ita-
nia dá, ya Oficioetara, audá Onrreta-
ra, eta beste funcio entierrocoetara
juatendiran Abadiey, emango zaien
jaten. Aguintzen dana da, ece ez bacar-
riiq eragoztendala jaten ematea Aba-
diey entierro egunean, bay eta ere
Onretaco egunetan, eta ez bacarric
Abadiey, baicican beste edocein per-
sonari, edocein modutaco oficiotaco
demboran.

Amargarren Dudia dá, ya esan-
dan Resolucio Realac eragoztenduen
moduban Onretaco Mezac eta beste
ofrecimentubac publicatzian, aitzen dan

del Difunto podrán concurrir a la Casa de la parte, que hace el Duelo, a acompañarle desde ella a la Iglesia, y tambien a su regreso: Declaramos, no estar prohibido el acompañamiento hasta la Iglesia, y si quando el que hace el Duelo regrese a su Casa: Y declaramos asimismo, que, el que haga el Duelo publico no haia de ser Mari-
do, Padre, ni Hijo del Difunto, sino alguno de los Parientes mas cercanos de éste, en quienes no cabe igual sentimiento, que en el Marido, Muger de éste, Padre ó Hijo del Difunto, evitandose por este medio, la necesidad del acompañamiento al que hace el Duelo publico regresando a la Casa del Difunto.

Por lo que hace a la novena duda, de si a los sacerdotes, que concurriesen a los Novenarios, Cavos de año, y otras Funciones funebres, se les podrá dar de comer, respecto que lo literal de la citada Real Resolucion, solo habla de entierros, sin extenderse, en esta parte, a otros oficios; atendiendo el nro Conjo, a que la razon de la prohibicion de dar de comer a los sacerdotes en los entierros, es en todo la misma que en los demas oficios Divinos de cavo de año, etc, y siguiendo el espiritu de dha Real Resolucion: Declaramos asi mismo, ser extensiva dicha prohibicion a los dias, en que se celebren los Novenarios, Cavos de año, etc, de modo, que por ningun titulo, ni pretexto se deba dar de comer a los sacerdotes, ni a los demas en semejantes oficios, o sufri-
gios hechos por el Alma del Difunto.

A la decima duda, reducida, a si en la prohibicion de publicarse las Misas, y otros ofrecimientos, que hiciesen algunas Personas, se entiende pro-

eragozte onetan, onretaco eguna, oyen orduba, eta eliza cenetan celebratu beardiran. Aguintzendana d: ece guztia eragoztendala, cergicatic publicatce onequin arquitcen dala moduba, bata bao bestea guchiago ez izatea vorondatezco diran gaucetan: baa ezta eragozten ece Difuntuaren herederoac, edo interesatubac abisatcea isilic bere Aidey paperez, edo beste moduz, eliza eguna, eta orduba oficio oyec celebratu bearduteneoa.

Amaecagarrena d, ya Resolucion Errialac aguitcen dituen multac, auda, berrogueda amar ducat parteari, eta eun Justiciari, aitcendan bacarric combite Difuntuaren echean eguiten diranegatic, edo izangodan pena onen aplicacioa, ordenan ezatendan edocein puntuaren uts eguiteagatic. Aguintendana d izan biardubela aitubac multa onec Capitulu guztietan ceetan uts eguiten dan.”

hividla la publicacin de los dias, en que se celebran estos oficios, hora de su celebracin, e Iglesia en que se egecuten: Declaramos, deve ser comprehendida en dha prohivicion la publicacion de dias, horas, e Iglesias, en que se celebren dhos oficios, respecto de que, de permitirse esta publicacion, se da lugar a que los Herederos, por un efecto de vanidad, y de no ser menos que otros celebren estos oficios, que le son voluntarios, y libres, si el Difunto no dispuso otra cosa; pero no se ha de comprender en dha prohivicion, que los Herederos, e interesados puedan privada, y particularmente avisar a sus Deudos por Esquelas o en otra forma, la Iglesia dia, y hora en que haian de celebrarse los oficios de Novenarios, Cavo de ao, y otros.

Ultimamente en quanto a la undecima, y ultima duda, sobre, si la pena de los cinquenta ducados, que impone la referida RI Resolucion a los contraventores, y ciento a las Justicias, debe entenderse solamente respecto al capitulo en que se prohiven los Convites, Juegos y Concursos en la Casa Mortuoria, o se devien extender tambien estas penas a la contravencion de qualquiera punto, que se halle decidido en la citada Real Resolucion a los Contraventores y ciento a las Justicias, deve entenderse solamente respecto al Capitulo, en que se prohiven los Convites, Juegos y Concursos en la Casa Mortuoria, o se devien extender tambien estas penas a la contravencion de qualquiera punto, que se halle decidido en la citada RI Resolucion: Declaramos asi mismo, debe extenderse dha prohivicion penal a todos, y cada uno de los

Puntos, ó Capitulos de la expresada Real Resolucion, y Real Provision, expedida en su vrd en diez de Mayo de mil setecientas setenta y uno, para que no se exceda, ni contravenga a ninguno de ellos pues que todos ceden en beneficio publico del Vecindario.”

1783ko Apirilaren 27an Bergaran izandako Udal Nagusian, non eman baitzen ezagutzena Erreal Probisioaren edukia, “bascuence”ra itzuli ziren bi alkate gipuzkoarren zalantzak eta Goren Kontseiluaren erantzunak. Hauek irakurri ondoren erabaki zen “se guarde y cumpla en todas sus partes, y que para el efecto se hiciese notorio por mi el escribano a los Iltres. Cabildos Eccos. de las parroquias de San Pedro y de Santa Marina”.

San Pedroko kabildoak zera eskatu zion kontzejoari, “se digne formar un plan que por ahora arregle los derechos parroquiales en los oficios fúnebres”.

Kontzejoaren erantzuna hau izan zen: “que por no hallarse la villa con facultades para formar plan alguno en el particular, se entiendan en dicho Iltre. Cabildo con sus respectivos parroquianos”.

Lan honen helburua Bergarako notarioaren itzulpenaren ondorioz sortutako testu euskerikoa argitaratzea denez, bukatutzat jotzen dut nere eginbeharra, gai honetan arduratzen diren filologoek jakin dezaten nola konpontzen zituzten XVIII. mendean era honetako arazoak.